

EZ OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2011ko apirilaren hogeita seiko eguerdiko hamabiak direnean, bildu dira, ez ohiko Udaltzarrak egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oizartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Jose Luis Albisua Lasa, Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar, Zinegotzia.

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia ez da etorri.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia ez da etorri.

Bittor Astigarraga Zugasti, Zinegotzia ez da etorri.

Josune Arruti Eizagirre Zinegotzia, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

2011KO MAIATZAREN 22AN OSPATUKO DIREN UDAL HAUTESKUNDEETAKO MAHAI KIDEEN AUKERAKETA.

Hauteskunde Erregimen Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26.artikuloan agindutakoarekin bat etorritik, hauteskunde ondorengo hogeita bostgarren eta hogeita bederatzigarren egunen artean, Udalak Hauteskunde Mahaiak osatzera jo behar dute, Eskualdeko Hauteskunde Junten gainbegirapean.

Hauteskunde Erregimen Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Legearen 26.2 artikuloan, Lehendakaria eta bokalak dagokion Sekzioan erroldatutako persona guztien artean zozketaz izendatuak izan behar dutela ezartzen da, hirurogeita bost urte baino gazteagoak eta irakurtzen eta idazten dakitenak eta lehendakariak batxilergo edo bigarren mailako lanbide heziketa titulua izan beharko du, edo subsidiarioki, graduatu eskolarra edo baliokideren bat.

Honela bada, 2.011ko apirilaren 15ean Alkateak Plenoa deitu zuen, aurrez aipaturiko zozketa egiteko. Hala bada, zozketa burutu ondoren eta bere emaitzarekin bat etorritik, Udaltzarrak, aho batez, zera erabaki du:

LEHENA: Jarraian aipatzen diren hauteskunde mahaietako lehendakariak eta bokalak izendatzea:

MAHAI BAKARRA

- | | |
|-------------------------|-------------------------------------|
| 1.- Presidentea- | Miren URKIOLA ARANBERRI. |
| 1. Ordezkoa- | Asier UGARTE RUIZ. |
| 2. Ordezkoa- | Maria Lourdes LASA MURUA. |
| 2.- 1.Kidea- | Maria Rosario LETE ALBERDI. |
| 1. Ordezkoa- | Cristina GODOY GASTAÑAGA. |
| 2. Ordezkoa- | Julian RUEDA MENDIZABAL. |
| 3.- 2.Kidea- | Eva Maria FLAMARIQUE HUICI |
| 1. Ordezkoa- | Franzisko Jabier ZINKUNEGI ALZELAI. |
| 2. Ordezkoa- | Jose Lino IRULEGI ZABALA. |

BIGARRENA: Aipaturiko erabakiaren berri Azpeitiako Hauteskunde Juntari jakineraztea, hauteskunde araudian aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Beste gairik ez dagoenez, eguerdiko hamabiak eta hogeitun minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.